



UKO EGITEKO ESKUBIDEA ERABILTZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontsumitzaile eta erabiltzaileek telefonoz, Internetez edo merkataritza-establezimendutik kanpo egiten dituzten kontratazioetan soilik aplikatzen da dokumentu hau.

Eskubidea duzu 14 egun naturaleko epean kontratu honi uko egiteko, inolako justifikaziorik eman gabe.

Zerbitzuak kontratatzen diren kasuan, kontratua egiten denetik 14 egun naturalera iraingiko da uko egiteko epea; ondasunen salmentaren kasuan, berriz, ondasunak jasotzen direnetik 14 egun naturalera.

Uko egiteko eskubidea baliatzeko, kontratuari uko egiteko erabakiaren berri eman behar diguzu modu argian (adibidez, gutun bat bidal dezakezu posta arruntez, faxez edo posta elektronikoz). Jarraian datorren formularioa erabil dezakezu uko egiteko, baina ez da nahitaezkoa. Bitarteko hauek erabil ditzakezu:

1. Posta arruntez idazteko, erabili helbide hau: 3 posta-kutxa, 48160 Derio (Bizkaia)
2. Faxe erabili nahi izanez gero: 901.440.204.
3. Mezu elektronikoz bat bidaltzeko: doku@euskaltel.com

Uko egiteko eskubidea gauzatzeko, 1717ra ere deitu dezakezu. Hala eginez gero, eskubidea duzu uko egiteko eskubidea baliatzeko dokumentu bat eskuratzeko. Posta arruntez edo posta elektronikoz bidaliko zaizu.

Uko egiteko epea betetzeko, nahikoa duzu eskubide hori baliatzeari buruzko jakinarazpena bidaltzea epea bukatu aurretik.

Uko egitearen ondorioak:

Uko egiten baduzu, zuk egindako ordainketa guztiak itzuliko dizkizugu, baita entregatze-gastuak ere (guk eskaintzen dugun entregatzeko modu arrunta baino modalitate garestiago bat aukeratu duzulako gastu gehigarriak ez badago behintzat), inolako atzerapenik gabe, eta, betiere, kontratu honi uko egin nahi diozula jakinarazten diguzunetik 14 egun natural igaro aurretik.

Itzulketa hori egiteko, zuk hasierako transakzioa egiteko erabili duzun ordainketa-modu bera



erabiliko dugu, eta ez zaizu inolako gasturik kobratuko itzulketa dela eta. Edonola ere, itzulketa atxiki egin dezakegu ondasunak jaso arte edo zuk haiek itzuli dituzula frogatzen duen froga bat aurkeztu arte, zein baldintza betetzen den lehenik.

Ondasunak itzultzearen zuzeneko kostua zure gain hartu beharko duzu.

Ondasunen izaera, ezaugarriak eta funtzionamendua ezartzeko beharrezkoa ez den manipulazioen bat egin eta ondasunen balioa txikitzen bada, zu izango zara horren erantzule.

Telekomunikazio-zerbitzuak emateko kontratuari dagokionez, zerbitzua ematen uko egiteko epearen barruan hasteko eskatu baduzu, zeure gain hartu beharko dituzu zerbitzua instalatzearen kostuak eta dagozkizun kuota eta kontsumoak.

UKO EGITEKO FORMULARIOAREN EREDUA

(kontratuari uko egin nahi izanez gero soilik bete eta bidali behar duzu formulario hau)

EUSKALTEL SArentzat (helbidea, faxa, helbide elektronikoa)

Honen bidez, jakinarazten dizut uko egiten diodala ondasun honen salmentakontratuari/zerbitzu honen kontratuari (*):

Noiz eskatua/noiz jasoa (*): _____

Kontsumitzaile eta erabiltzailearen izena: _____

Kontsumitzaile eta erabiltzailearen helbidea: _____

Kontsumitzaile eta erabiltzailearen edo kontsumitzaile eta erabiltzaileen sinadura(k) (formularioa paperean aurkezten bada soilik):

(*) Ezabatu ez dagokiona.

_____n, 20__ (e)ko _____aren ____ (e)(a)n.